

## **Informazio-zirkularra: 2024/01**

Hernani, 2024ko urtarrilaren 20a

### **ZERGA-ARLOA – 2024ko zerga-egutegia**

Gipuzkoako Foru Ogasunak argitaratua du 2024ko zerga-egutegia. Zehazki, honako informazio hauek biltzen ditu: zerga-aitorpenak aurkezteko eta ordaintzeko epeak eta egunak, erabiltzen diren eredu ohikoenak, eta 2024ko aitorten aldizkako zein ez-aldizkako epeen mugak edo azken egunak.

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456431/2504148/2023+PosterCalendario+fiscal.pdf/45ce6aea-024f-55b1-4104-10d75a3b2595?t=1672158713437>

### **ZERGA-ARLOA – 2023ko 4. hiruhilekoko zerga-betebeharrak**

Urtea amaitu zaigun honetan, 2023ko BEZaren eta atxikipenen urteko laburpenak egingo ditugu 2024ko urtarrilean; hortaz, eskertuko dizuegu ahalik eta datu gehien biltzen hastea.

Ekitaldia ixteko, garrantzitsua da zerga nagusiak aztertzea, enpresaren eta enpresariaren ikuspuntutik, zerga-betebeharrak betetzeari begira erabaki egokienak hartzeko.

### **KONTABILITATE-ARLOA**

2023ko ekitaldia itxiko dugunez, jakinarazten dizuegu ekitaldi horretan sartu behar direla 2023ko abenduaren 31ra bitarteko kontabilitate-dokumentu guztiak, bidalitako eta jasotako fakturak eta 2023ko abenduaren 31ko datako inbentarioa.

### **ZERGA-ARLOA EGUNERATZEN – BEZ-A**

**2023ko aitorten-likidazioa 2024ko urtarrilaren lehen 31 egunen barruan aurkeztu behar da.** Aurkezteko epearen azken eguna larunbatean, igandean edo jaiegun batean egokituz gero, ondorengo egun baliodunean amaituko da. **2024ko urtarrilaren 31ean amaituko da aurkezteko epea.**

BEZa arautzen duten legeetan honako aldaketa hauek egin dira:

- Indar armatuekin eragiketak egiteko salbuespena
- Zerbitzu-prestazioen kokapena, erabilera edo ustiapen erregela efektiboak
- Subjektu pasiboaren alderatzea
- Ez ordaintzeagatik, zerga oinarri aldaketa
- BEZaren % 4ko eragiketa berriak

- Kanpo merkataritza eta aduanak
- Merkataritza elektronikoa

2023ko bigarren seihilekoan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan oinarritzko elikagai produktuen gaineko ehuneko 0ko zerga tasaren aplikazioa luzatzen da, bai eta oliba eta hazi olioen eta elikadura pasten gaineko ehuneko 5ekoa ere.

## **ZERGA-ARLOA EGUNERATZEN – ETXEBIZITZEN ALOKAIRUA**

### **Alokairuen igoeraren muga % 3koa izango da**

2023ko maiatzean onartu zen Etxebizitzaren Legeak aldaketa bat sartu zuen alokairuaren prezioen mugaketan hurrengo urterako. Jabea edukitzaile handia izan (10 etxebizitza edo gehiago ditu) edo ez, alokairuaren urteko igoera ezin da % 3tik gorakoa izan. Hori horrela izango da 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean berritu behar diren kontratuetarako.

## **LAN-ARLOA EGUNERATZEN – 2024ko berrietasunak**

### **Bekadunen kotizazioa**

Era berean, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, gradu, master eta doktoregoko unibertsitarioak eta bekadun gisa dauden lanbide-heziketako ikasleak Gizarte Segurantzaren kotizatzen hasiko dira, horregatik kobratzen badute ere. Hala erabaki da 2/2023 Errege Dekretuan. Enpresak bere gain hartuko du kotizazioa, eta % 95eko murrizketa izango du kontingentzia arruntetan. Estaldura partziala da, bekadunek ez baitute langabezia-prestaziorako eskubiderik izango. 2/2023 Errege Lege Dekretua indarrean sartu aurretik praktikak egin dituzten ikasleek hitzarmen berezi bat izenpetu ahal izango dute Gizarte Segurantzarekin, aurretik egindako praktikak baloratuko dira.

Beraz, praktiketako ikasleei besteren konturako langile gisa eman beharko zaie alta Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean.

### **2024ko LGS**

LGSa 1.080 eurokoa izan zen 2023an, eta 1.134 eurokoa 2024an izango da datozen egunetako LGSren igoera BOEn argitaratzeko zain.

Lanbide arteko gutxieneko soldata hileko 1.134 € gordinetara izango da, 14 ordainsaritan (15.876 euro gordin urtean). Kopuru horrek % 5eko igoera ekarri du 2023ko datuekin alderatuta.

Orduka lan egiten duten etxeke langileen kasuan, gutxieneko soldata 8,87 eurokoa izango da benetan lan egindako ordu bakoitzeko.

Ministroen Kontseiluan onartzen den gehikuntza hau 2024ko urtarrilaren 1era arteko atzera eraginarekin aplikatuko da langile guztientzat baino BOE ofizialaren zain gaude.

**Gogorazten dizuegu Brintzako Departamentu Juridikoan kalitatezko zerbitzua emango dizuegula arlo hauetan: diru-erreklamazioak, ordaindu gabekoak, saleroste- eta errentamendu-kontratuen arloko aholkularitza eta idazketa, herentzien tramitazioa, testamentuen arloko azterketa eta aholkularitza pertsonalizatua, erretiroak eta ezgaitasunak, eta abar.**